

HONDAKINEN BILKETA SISTEMA ERABAKITZEKO PARTAIDETZA PROZESUA

2015-02-03. 1.SAIOAREN AKTA

BILERAREN XEHETASUNAK:

- Bilera zenbakia: 1
- Data: 2015-02-03
- Lekua: Agirre Jauregia, Deba
- Hasiera ordua: 19:00
- Amaiera ordua: 21:00



DINAMIZAZIOA:

- Parte hartzaile kopurua: 30 herritar
- Mainer Zubikarai alkatea eta Jose Fran Muniozguren Agirrebeña Debabarrenako mankomunitateko gerentea
- Dinamizatzaileak: Arkaitz Martinez de Albeniz, Ekhi Zubiria eta Maitane Barrenetxea.



1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Debako alkatea den Maider Zubikaraik hartu du hitza, bertaratutako herritarrei ongietorria eman eta abiatzen den prozesu honen arrazoiak aurkeztu eta azaltzeko.

Hondakinen gaia azken urteetan Gipuzkoan asko lantzen ari den gaia dugu. Debako Udalak hondakinen egoera landu eta hondakinen bilketa sistema hobetzeko helburuarekin herritarren partaidetza prozesu bat jarri du martxan, herri galdeketa batekin amaituko dena. Erabaki hau sortu den Hondakinen Batzordean ari da diseinatzen eta antolatzen. Batzordea Udalean ordezkaturiko alderdi politiko guztiek osatzen dugu, eta Aztiker Aholkularitza lanak egiten dabil bai batzordean eta baita herritarren prozesuan ere.

2. PROZESUAREN KOKAPENA

Aurkezpenaren ondoren, prozesu honen antolaketa eta dinamizazio lanean arituko den Aztiker ikergune sozialeko Maitane Barrenetxeak hartu du hitza.

Prozesu honek dituen helburuak honakoak direla azaldu du:

- Gaur egun DEBAko **hondakinen egoera** eta bilketa sistema **ezagutu eta eztabaidatu**
- Bilketa sistema eta **aukera desberdinak ezagutu eta aztertu**
- Bilketa sistema berriak izan behar dituen **ezaugarriak proposatu**
- DEBARako hondakinen **bilketa sistema erabaki**
- Hondakinen **sailkatzea hobetzea**.
- Herritarrok **hondakinen inguruko kontzientzia** hartu

Hondakinen Batzordearen baitan, herri galdeketara eramango den/diren galderak baldintza hauek beteko dituztela adierazi du:

- %60ko gaikako bilketa-tasa bermatzen duten aukerak izango dira.

Horrez gain, Debako Hondakinen Batzordea bera izango da herritarrekin egindako prozesu honen ondorio eta eduki nagusiak bildu eta Herri Galdeketarako galdera formulatuko duena.

Gaurko saioak helburu hauek dituela azaldu du:

- Prozesuaren aurkezpena egitea
- Gaur egungo Debako hondakinen egoeraren aurkezpena egitea
- Partaideek egungo egoeraren azterketa egitea
- Hondakinen egoera hobetzeko gakoak identifikatzea

3. HONDAKINEN EGOERAREN AURKEZPENA

Jarraian, Debabarrenako mankomunitateko kide den Jose Francisco Muniozguren Agirrebeñak hartu du hitza eta Debako hondakinen egungo egoeraren berri eman du.

Lehenik, Debako biztanleriaren datuak eman ditu eta hondakinen bilketa zenbat frakziotan egiten den azaldu du. Kasu honetan, lau frakzio nagusietan burutzen delarik; papera eta kartoia, ontzi arinak, beira eta nahasia. Pilak, arropa eta olioak biltzeko sistemak baldin badaude ere.

Gero, 2013 eta 2014 urteetako Debako sailkatze tasak alderatu ditu eta bereizi gabeko hondakinen osakeraren berri eman du.

Konposta eta hondakinen tratamenduaren inguruan hitz egin ondoren, egungo sistemak sortzen dituen kostuei eta tasei erreferentzia eginez amaitu du.



4. GALDERAK ETA ERANTZUNAK

10 minutuko tartea zabaldu da aurkezpenean azaldutakoaren ingurukoari buruzko galderak egiteko.

5. HONDAKINEN EGOERAREN AZTERKETA

Azalpenak burutu ondoren, talde txikietan banatu gara. Hiru talde osatu dira, gaur egun Deban duten sistemaren atal ezberdinen indarguneak, ahulguneak eta hobetu beharrekoak identifikatzeko.

Deban hondakinen egoeraren azterketa egiteko landu diren atalak hauek dira: gaur egun, Deban sortzen ditugun hondakinak, gaur egun Deban sailkatzen dugun hondakina, tratamendua, sistemaren funtzionamendua, gastuak.

Hona hemen talde bakoitzak sortutako edukia:



1.taldea	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
SORTZEN DUGUNA	<ul style="list-style-type: none"> Etxeko ohituren garrantzia 	<ul style="list-style-type: none"> Hondakin asko sortzen ditugu. 	<ul style="list-style-type: none"> Sentsibilizazioa: zenbat sortzen dugu, nola sor dezakegun hondakin gutxiago...
SAILKATZEN DUGUNA	<ul style="list-style-type: none"> Hiztegia daukagu nola sailkatu azaltzeko Kuboa edukitzea poltsa konpostagarriekin oso eroso da Herritarrak sailkatzen ikasten ari gara 	<ul style="list-style-type: none"> Ez da derrigorrezkoa eta beraz herritar askok ez dute egiten Ezin da birziklatu edukiontzirik ez dagoelako (organikoa) Herritarrek erosotasunagatik hondakinak kanpoan uzten ditu, eta ondoren kamioi berberak jaso Organikoarekin aukerarik ez (auzokonposta egiteko itxaron zerrenda) Elkarteetan gutxi birziklatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> Edukiontzi gehiago. Jatetxe eta merkatariekin lan gehiago egin behar da
TRATAMENDUA	<ul style="list-style-type: none"> Auzokonpostaren gaia interesgarria da 		
FUNTZIONAMENDUA (Gertutasuna, ordutegiak, garbitasuna...)	<ul style="list-style-type: none"> Ordutegi eta egun libreak ditugu gaur egun, ordutegi ona 	<ul style="list-style-type: none"> Aparkalekuak kentzen dituzte, gero eta edukiontzi gehiago, orduan eta aparkaleku gutxiago Leku batzuetan garbitasun falta handia 	
GASTUAK	<ul style="list-style-type: none"> Datuak ikusita birziklatzea merkeagoa da Organikoa eta errefusaren arteko aldea oso handia da Deskontua edo hobaria dago tasan auzokonposta egiteagatik 	<ul style="list-style-type: none"> Ez da tonelada bakoitzeko ekarpena egin behar bakarrik, transportea ere kontuan izan behar da. 	
BESTELAKORIK		<ul style="list-style-type: none"> Udan edukiontziak gainezka egoten dira. Kartoia doblatu eta hautsi gabe botatzeak asko abultatzen eta betetzen du edukiontzia Enfrentamendu politico handia dago gaiarekin. 	



2.taldea	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
SORTZEN DUGUNA	<ul style="list-style-type: none"> Komodidadea, ardura eza 	<ul style="list-style-type: none"> Kontzientzia falta Irresponsabilidadea 	<ul style="list-style-type: none"> Erosketako poltsak gutxitzea: eroskik eta herritarrek
SAILKATZEN DUGUNA	<ul style="list-style-type: none"> Aukera gutxi egon da, zerbait egiten da 	<ul style="list-style-type: none"> Gutxi sailkatzen da Ez du kontzientzia sortzen sistemak 	<ul style="list-style-type: none"> Informazio gehiago behar, zer non bota Kontzientzia
TRATAMENDUA	<ul style="list-style-type: none"> Konpost komunitarioa ondo Etxe aurretik kendu, begi bistatik 	<ul style="list-style-type: none"> Nahasi guztia beste herri batera 	
FUNTZIONAMENDUA (Gertutasuna, ordutegiak, garbitasuna...)	<ul style="list-style-type: none"> Komodidadea 	<ul style="list-style-type: none"> Puntu batzuk gainezka egiten dute 	
GASTUAK		<ul style="list-style-type: none"> Gutxi sailkatu, diru gutxi jaso Gastu oso altua udalarentzat, %10 	<ul style="list-style-type: none"> Ahalik eta gehien auzo/autokonposta
BESTELAKORIK			

3.taldea	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
SORTZEN DUGUNA	<ul style="list-style-type: none"> Kanapinek efektua Dendetan poltsa gutxiago 	<ul style="list-style-type: none"> Plastikoa exageratua Erosoagoa da dena pakete txikitan 	
SAILKATZEN DUGUNA	<ul style="list-style-type: none"> Egun egiten da Konposta eroso Konposta klabea da 	<ul style="list-style-type: none"> No hay interes El verde 	<ul style="list-style-type: none"> Kontzientzia garatu Konpostajearen eragin Quitar el verde Donde no hay isla quitar el verde
TRATAMENDUA			
FUNTZIONAMENDUA (Gertutasuna, ordutegiak, garbitasuna...)	<ul style="list-style-type: none"> Edukiontzia eroso 	<ul style="list-style-type: none"> Zikina da Edukiontzia beteta Edukiontzi guztiak itsusi litzateke Distancia entre contenedores Ahoak oso txikiak 	<ul style="list-style-type: none"> Irla osoak Informazio gehiago
GASTUAK			<ul style="list-style-type: none"> Organiko gehiago
BESTELAKORIK		<ul style="list-style-type: none"> Kontzientziario gutxi 	<ul style="list-style-type: none"> Alicientes

6. HONDAKIN SISTEMA HOBETZEKO GAKOEN IDENTIFIKAZIOA

Talde txikietan banatuta jarraituz, partaideek galdera honi erantzun diote:



Zure ustetan ze irizpide/helburu bete behar ditu Debako hondakinen bilketa sistemak?

Parentesi artean agertzen diren zenbakiak esaldi bakoitza errepikatua izan den kopuruari egiten diote aipamena.

Lehenengo taldean markatu diren helburuak hauek dira:

- Konposta sustatu. Organikoaren garrantzia
- Ahalik eta tasa altuenaren bila Joan
- Inportanteena reciclar al máximo, dana.
- Reciclar todo lo posible. Compostaje
- %70 reziklatzea. Konpostatzea
- Atez atekoa edo verdea poliki poliki kentzen joatea
- Ahal den gehiena reziklatzea. Atez atekoa.



Bigarren taldearen erantzunak aldiz honakoak dira:

- %60tik gora ahal den gehien
 - Horren barruan komodidade bat: ordutegiak malguak vs. Gastuak/kostuak
- Informazio argia, zer non bota jakiteko
- Kasu bereziak kontuan hartzea, zailtasunak dituen jendea...
- Sistemak berak behartzea/bideratzea birziklapena
- Organikoa sailkatzea indartzea, lehentasuna
- Kontzientziario kanpaina
- Organikoa ahal den neurrian zirkuitotik ateara, bertan egiten da.

Hirugarren taldeak helburu hauek markatu ditu:

- El nuevo sistema tiene que cumplir: el reciclar el máximo posible, si se puede un 80%. A un coste menor y que sea lo más cómodo para todos. Es decir, bueno, bonito, barato.
- Birziklapen maila handia lortzea, %60tik gora. Ahal den jende gehien kontzientziatu borondatez sailkatzeko. Onura ekonomikoak.
- Mucha información para que se concencie la gente. La instalación del 5º contenedor y estudiar bien las zonas para que no falten contenedores y se evite el echar todo en el verde, que a veces creo que echan todo porque no tienen más.
- Información (para tontos), islas completas 5º contenedor, reciclaje real 60%
- Aunar el mayor número de porcentaje de reciclaje y el mayor número de consenso en la ciudadanía.



7. PLENARIOA

Talde guztiak berriro elkartu ondoren, dinamizataileek, taldeetan irten diren ideia nagusien laburpena egin dute.

8. ITXIERA ETA HURRENGO URRATSAK

Dinamizataileak lan saioaren errepasso azkarra burutu ondoren, hurrengo hitzordurako zita gogoarazi die partaideei:

Datorren otsailaren 18an arratsaldeko 19:00etan Agirre Jauregian mahai ingurua egingo da hondakin bilketa sistema desberdinak ezagutzeko.

9. SAIOAREN BALORAZIOA

Irten aurretik, aretoaren sarreran ipiniriko karteltxoan saioaren balorazioa egiteko eskatu zaio parte hartzaile orori. Honakoa izan da partaideek egindako balorazioa:

	LAN EGITEKO MODUA	BILERAKO GIROA	SORTU DIREN EDUKIAK
😊	Xxxxxx xxxxxx	Xxxxxx xxxxxxx	Xxxxxx xxxxxx
😐			
😞			